

1. Mailako LH-DUALaren esparruan DUALeko Esperientzia

Experiencia de formación DUAL, en el marco de la Formación-Dual 1º

HEIZE ETA IKASLAN arteko LANKIDETZA HITZARMENA

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE HEIZE E IKASLAN

Vitoria-Gasteiz, 2023ko, urtarrilaren 31a

Vitoria-Gasteiz, 31 de enero de 2023

BILDU DIRA / REUNIDOS

Batetik, **Iñigo Salaberria Aliaga**, HEIZE, EUSKAL ESKOLA PUBLIKO IKASTETXEEN ELKARTEKO lehendakaria.

De una parte, **Iñigo Salaberria Aliaga**, en calidad de presidente de HEIZE, EUSKAL ESKOLA PUBLIKO IKASTETXEEN ELKARTEA.

Bestetik, **Nora Amorena Iturralde**, Ikaslan Gipuzkoa, Gipuzkoako Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoetako Zuzendarien Elkarteko lehendakaria.

De otra, **Nora Amorena Iturralde**, en calidad de presidenta de Ikaslan Gipuzkoa, Asociación de Directores y directoras de Centros Públicos de Formación Profesional en Gipuzkoa

Bestetik, **Begoña Andres Elorriaga**, Ikaslan Bizkaia, Bizkaiako Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoetako zuzendarien Elkarteko lehendakaria.

De otra, **Begoña Andres Elorriaga**, en calidad de presidenta de Ikaslan Bizkaia, Asociación de Centros Públicos que imparten Formación Profesional en Bizkaia.

Bestetik, **Javier Ochoa de Alaiza Pérez**, Ikaslan Araba, Arabako Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoetako zuzendarien Elkarteko lehendakaria.

De otra, **Javier Ochoa de Alaiza Pérez**, en calidad de presidente de Ikaslan Araba, Asociación de Centros Públicos que imparten Formación Profesional en Araba.

Dagozkien erakundeen izenean eta ordezkaritzan jardungo dute, eta elkarri aitortuko diote Hitzarmen hau egiteko behar den gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna.

Actuando en nombre y representación de las entidades respectivas, reconociéndose mutuamente la capacidad jurídica y de obrar necesaria para la celebración del presente Convenio.

ADIERAZTEN DUTE / MANIFIESTAN

HEIZE, EUSKAL ESKOLA PUBLIKO IKASTETXEEN ELKARTEAREN helburuen artean dago hezkuntza-komunitatea eta ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeak ordezkatzeko komunitateko eragileen aurrean.

IKASLAN ARABA, IKASLAN GIPUZKOA ETA IKASLAN BIZKAIA Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hirurogeita bost ikastetxe publiko osatutako hiru elkarte dira, eta Lanbide Heziketa ikasketak ematen dute. Elkarte horien helburu nagusia da hezkuntza-munduan erreferente izatea Lanbide Heziketarekin zerikusia duten gai guztietan, beren iritziak, proposamenak, interesak eta proiektuak administrazio eta elkarte profesionalen aurrean bideratuz, irakaskuntza profesionalaren kalitatea etengabe hobetzeko, gaitasun teknologikoa eguneratuz, hezkuntza-eskaintza berrituz eta zabalduz.

Lankidetzaren Proiektu hau Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Haur, Lehen, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen arteko lankidetzaren erakusgarri da, eta honako helburu hauei erantzun nahi die:

1. Ikastetxe publikoen hezkuntza- edo prestakuntza-kalitatea hobetzen laguntzea
2. Ikastetxe publikoak zentro laguntzaileak izatea enpresetako prestakuntzaren DUALean
3. Lankidetzaren ingurune bat sortzea etorkizuneko lankidetzaren berriarako.

Horregatik guztiagatik, aldeek lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauen arabera:

Que HEIZE, EUSKAL ESKOLA PUBLIKO IKASTETXEEN ELKARTEA tiene entre sus objetivos representar a la comunidad educativa y a los equipos directivos de los centros públicos ante los diferentes agentes de la comunidad.

Que IKASLAN ARABA, IKASLAN GIPUZKOA E IKASLAN BIZKAIA son tres asociaciones formadas por sesenta y cinco centros públicos del Territorio Histórico de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, que imparten Formación Profesional, cuyo principal objetivo es ser un referente en el mundo educativo en todos los temas relacionados con la Formación Profesional, canalizando ante las diferentes administraciones y asociaciones profesionales sus opiniones, propuestas, intereses y proyectos, en busca de una mejora continua de calidad de la enseñanza profesional, actualizando la capacidad tecnológica, renovando y ampliando la oferta educativa.

Que este proyecto es una muestra de la cooperación entre los centros de Infantil, Primaria, Secundaria y Formación Profesional Públicos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, que pretende dar respuesta los siguientes objetivos:

1. Contribuir a la mejora de la calidad educativa o formativa los centros públicos
2. Los centros públicos que colaboren en la realización de la formación DUAL en las empresas
3. Crear un entorno, ecosistema de cooperación para futuras colaboraciones

Por todo ello, las partes acuerdan establecer el presente Convenio de colaboración, de acuerdo a las siguientes:

KLAUSULAK / CLÁUSULAS

LEHENENGOA: XEDEA

Hitzarmen honen xedea da HEIZE eta IKASLANen arteko lankidetzaren esparru bat garatzea, Lanbide Heziketako ikasleei Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan laguntza eta prestakuntza emateko, prestakuntza dualeko lehen esperientzia gisa benetan egiten ari diren ikasketen esparruan, Mikroinformatikako Erdi Mailako eta Sareko Sistema Informatikoen Administrazio Goi Mailako zikloetako Lehen Mailako Lanbide Heziketako zikloen esparruan. Halaber, Administrazioa eta Finantzak, Mantentze-lanak eta abar bezalako zikloen beste familia batzuetara ere zabal daiteke.

BIGARRENA: IZAERA, HELBURUAK ETA EKINTZAK

Hitzarmen honen bidez egingo diren ekintzen helburua da ikastetxeek ikasleak elkarren artean izateko duten beharrari erantzutea, ikastetxeetan eta lanbide-familietan egin daitezkeen praktiken esperientzietan parte hartzeko.

HIRUGARRENA: ALDEEN EKARPENA ETA KONPROMISOAK

Hitzarmen honetan jasotako helburuak lortzeko eta aurreikusitako ekintzak gauzatzeko, hitzarmena sinatu duten aldeek honako ekarpen- eta konpromiso-araubide hau adostu dute:

A.- HEIZEk konpromiso hauek hartu ditu:

1. HEIZEko ikastetxeei esperientzia pilotuaren edukiaren berri ematea
2. LHko ikastetxe publikoetako ikasleak hartzeko giroa sortzea

PRIMERA:OBJETO

Es objeto del presente convenio el desarrollo de un marco de colaboración HEIZE e IKASLAN, para el apoyo y la formación de alumnado de Formación Profesional en centros de infantil, primaria y secundaria en el ámbito de los estudios que se está cursando de una manera real como primera experiencia de formación dual, en el marco de la Formación-Dual 1º en principio, de los ciclos de Grado Medio de Microinformática y de Grado Superior de Administración de sistemas informáticos en red, ampliable a otras Familias de Ciclos que puedan ser de interés común, como Administración y finanzas, Mantenimiento, etc.

SEGUNDA:NATURALEZA, OBJETIVOS Y ACCIONES

Las acciones objeto de este acuerdo que se realizarán mediante este Convenio pretenden responder a la necesidad mutua de los centros de contar con el alumnado para participar en las experiencias de prácticas-DUAL que se puedan realizar en los diferentes centros y en las diferentes Familias Profesionales.

TERCERA:COMPROMISOS DE LAS PARTES

Para la consecución de los objetivos y materialización de las acciones contempladas en el presente Convenio, las partes suscribientes del mismo acuerdan el siguiente régimen de aportaciones y compromisos:

A.- Por parte de la HEIZE se compromete a:

1. Informar a los centros de HEIZE sobre el contenido de la experiencia piloto
2. Crear el clima para acoger al alumnado de FP-Dual de los centros Públicos de FP

3. Lankidetzaz-hitzarmena eta esperientzia pilotua argitaratu ematea

3. Hacer público el convenio de colaboración y la experiencia piloto

B.- IKASLANek konpromiso hauek hartu ditu:

1. IKASLANi atxikitako ikastetxeetako ikasleei sarbidea erraztea, 1. Mailako Lanbide Heziketa-Dual programa bitartez.
2. Prozesuak kudeatzea, jarraibideen arabera, eta HEIZEko ikastetxeetan egiten diren zereginak gainbegiratzea, hitzarmenak hartzen duen esperientzian.
3. Lankidetzaz-hitzarmena eta esperientzia pilotua argitaratu ematea

B.- Por parte IKASLAN se compromete a:

1. Facilitar el acceso del alumnado de Formación-Dual de 1º de los centros asociados a IKASLAN.
2. Gestionar el proceso, según marca las instrucciones, supervisar al alumnado en las tareas desarrolladas en los centros de HEIZE en la experiencia que abarca el convenio.
3. Hacer público el convenio de colaboración y la experiencia piloto

BOSGARRENA:JUSTIFIKAZIO ERA

Aldeen artean adosten diren dokumentuak edo administrazioak Lanbide Heziketa-Duala egiteko eskatzen dituenak landuko dira.

QUINTA: FORMA DE JUSTIFICACIÓN

Se trabajarán los documentos que se acuerden entre las partes o lo que requiera la administración para la realización de Formación Dual

SEIGARRENA:ALDAKETAK

Hitzarmen honen edozein aldaketa jakinarazi beharko da eta aldean oniritzia izan beharko du.

SEXTA :MODIFICACIONES

Cualquier modificación del presente convenio deberá comunicarse y contar con el visto bueno de las partes.

ZAZPIGARRENA: HIZKUNTZA

Hitzarmen honen inguruan sortuko diren dokumentuek euskara izango dute, gutxienez, komunikazio-hizkuntza.

SÉPTIMA:IDIOMAS

Los documentos que se vayan a crear en relación a este convenio por lo menos tendrán como idioma vehicular el euskara.

Ekimen honetan parte hartzen duten ikasleek euskara eta gaztelania gutxienez menderatu beharko dituzte.

El alumnado que tome parte en esta iniciativa tendrá que dominar por lo menos el euskara y el castellano

ZORTZIGARRENA :HIZKERAREN ETA IRUDIEN ERABILERA EZ-SEXISTA

Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu behar da agiri guztietan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoak, dioena betetzeko. Lege horri jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezin izango dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestu egingo dira eta roletan eta genero identitateetan sexu aniztasuna bultzatuko da.

BEDERATZIGARRENA: IRAUPENA

Parte hartzen duten aldeek sinatzen duten egunean jarriko da indarrean hitzarmen hau, eta 2024ko urtarrilak 31 arte egongo da indarrean. Urtero luzatu ahal izango da, aldeek hala adosten badute.

Hala, bat datozela adierazteko, parte hartu duten aldeek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako toki-egunetan.

HEIZE PRESIDENTEA
Iñigo Salaberria Aliaga

OCTAVA: USO NO SEXISTA DEL LENGUAJE Y LAS IMÁGENES

Se garantizará el uso no sexista del lenguaje en la totalidad de los documentos emitidos, en cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Al amparo de la citada Ley, en las imágenes que pudieran publicarse, no se exhibirá a las personas como inferiores o superiores en dignidad humana en función de su sexo, o como meros objetos sexuales, se evitarán los estereotipos sexistas y se potenciará la diversificación sexual, de roles y de identidades de género.

NOVENA: VIGENCIA

El presente convenio entrará en vigor el día de su firma por las partes intervinientes y mantendrá su vigencia hasta el 31 de enero de 2024, pudiendo ser prorrogado anualmente por acuerdo de las partes.

En prueba de conformidad, las partes intervinientes firman por duplicado el presente Convenio, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

IKASLAN ARABA PRESIDENTEA
Javier Ochoa de Alaiza Pérez

IKASLAN BIZKAIA PRESIDENTEA
Begoña Andres Elorriaga

IKASLAN GIPUZKOA PRESIDENTEA
Nora Amorena Iturralde

